

**2010-eko MARTXOAREN 29-ko HERRIKO KONTSELUA
TXOSTENA**

Hor zirenak: Odile de CORAL Anderea , Auzapeza, Germaine HACALA, Francis GAVILAN, Agnès CONNAN-GIACOMETTI, Beñat IRASTORZA, Claire d'ELBEE, Pierre TETEVIUDE, Isabelle RAGOZIN, Martin TELLECHEA, Michel BERCETCHE, Pascal MARTIN, Marie-Hélène GOYA, Michel LARRETCHÉ, Beñat EXPOSITO, Léon MARIN, Jean TELLECHEA, Valérie ANDIAZABAL, Danièle DUFAU, Marie-Josée GOYA, Isabelle ECHEVERRIA, Dominique MELE, Thérèse HALSOUET, Beñat ELIZONDO.

Botereak :

PERY Andereak DUFAU Andereari
PICOT Jaunak Auzapez Andereari
ARAMENDI Jaunak ELIZONDO Jaunari
LASSALLE Jaunak MELE Jaunari
ARAMBURU Andereak HALSOUET Andereari

Hor ez zena :

Isabelle LE BARS-FAURISSON

Beñat EXPOSITO idazkari izendatua da

I – 2010eko MARTXOAREN 8-ko HERRIKO KONTSEILUAREN TXOSTENAREN ONESPENA

Txostena aho batez onetsia izan da.

II – AUZAPEZAREN ABISUAK

- **Erabakiak**

Turismo bulegoaren berrantolaketarako obren merkatua

2010eko otsailaren 18an erabakia, 2010eko otsailaren 23an izenpetua

Kontratuak izenpetuak izan dira enpresa hauekin :

SANTOS zozietatea, 64700 HENDAIA, lehen zatia (urratze - obra handiak- lauzadura) orotara 11 820,00 € (tasarik gabe) ;

POSTEL zozietatea 64122 URRUÑA, 2. zatia (kanpoko eta barneko zurgin lanak) orotara 8 864,22 € (tasarik gabe) ;

GOYTY zozietatea, 64122 URRUÑA 3.zatia (igeltsua) orotara 5 743,00 € (tasarik gabe) ;

SUDELEC COTE BASQUE zozietatea, 64100 BAIONA, 4. zatia (elektrika eta berokuntza) orotara 5 550€ (tasarik gabe) ;

OSTIZ zozietatea, 64122 URRUÑA, 6. zatia (pintura) orotara 5 698,99 € (tasarik gabe) ;

5. zatiko obrak –iturgintza- herriko langileek egingen dituzte.

Bideetako pinturaren erosketa 2010 urterako

2010eko martxoaren lehenean erabakia, 2010eko martxoaren 4ean izenpetua

Donibane Lohitzuneko SEIGNEURIE Distribution hautatua izan da bideetako pintura hornitzeko, orotara 8 712.10 €-rentzat (tasarik gabe) edo 10 419,67 € (tasa barne).

III – GAI OROKORRAK

1 – « Musika auzoetan » entzun ikuskizunaren sartze tarifak.

Hona zer proposatua den :

Itsas Mendi gelan 2010-eko maiatzaren 21ean : « Doolin »

Pausuko elizan 2010eko maiatzaren 22an : « Bidaia »

Oletako kaperan 2010eko maiatzaren 23an : « Watson »

Sartzea hiru konzertuentzat : Helduak 10 €

12/ 16 urtekoentzat 5 €

12 urte petik urririk

Sartze sari hauek aho batez bozkatuak izan dira.

IV – FINANTZA ZERBITZUKO GAIK

1 – 2010eko aurrekontuaren bozkatzea – Aurrekontu nagusia

ECHEVERRIA, HALSOUET, ARAMBURU Andereek, LASSALLE, ARAMENDI, MELE, ELIZONDO jaunek, kontra bozkatu dute.

Oharrak 2010eko Aurrekontuaz

Aldaketa / Lehen Aurrekontuaren proiektua

* Laborantza Ganbararen ikerketa

Beñat EXPOSITO-k aurkezten du ikerketaren proiektua.

ELIZONDO Jaunak galdetzen du Laborantza Ganbara horrelako ikerketak egiten dituen erakunde bakarra denez.

Beñat EXPOSITO-k erantzuten dio ezetz baina honek esperientza baduela gai honi doakionez. Horrelako ikerketa egina izana da Bankan

MELE Jaunak erraiten du aurrekontuaren kontra bozkatuko duela.

ECHEVERRIA Andereak zenbait ohar gehitzen ditu : berriz ere zenbait auzo ahantziak izan dira aurrekontu honetan (hala nola Karrika xahar)

Aurrekontu hau aitzinako politiken antzekoa da : turismoa, eliza, kirol zelaia, deus ez hizkuntza politikari doakionez.

HACALA Andereak errana dena gaitzesten du ihardetsiz arlo honetan gauzak eginak direla.

ELIZONDO Jaunaren arabera ezin da onartu inbertsioaren aldaketak egitea azken momentuan. Deus ez da uholdeeri buruz. Dirua berex emana da eta deus ezta egin

GAVILAN Jaunak dio gauzak eginak izanen direla aurten Pausun.

ELIZONDO Jaunaren arabera zenbait proiektu lasterrago gauzatuak dira.

Auzapez Andereak erraiten du gauzak luzatuak direla herriaren erdialdean unkituak diren jabeen interesak babesteko. Denek onartuko dituzten aterabideak aurkitu nahi dira.

ELIZONDO Jaunak Bidasoaren hondoaren betetzea aipatzen du.

MELE Jaunak xehetasunak galdetzen ditu uholdeen kontrako defentsa obretaz herri erdian.

Auzapez Andereak ihardesten du ASF delakoaren iritziaren beha gaudela eta harremanetan gabela leku huntako jabeekin.

HALSOUET Andereak galdetzen du Elkargoak ikerketak egin dituen uholdeetaz.

Auzapez Andereak ezetz dio.

2 – 2010eko Lehen Aurrekontuaren bozkatzea – Lore Parkearen eranskin Aurrekontua.

ARAMBURU, HALSOUET, ECHEVERRIA Andereak, ARAMENDI eta ELIZONDO Jaunek kontra bozkatu dute.

ELIZONDO Jaunak dio Lore Parkeak 1.000.000 € gosta zaiola Herriari

3 – Inposaketa tasaren bozkatzea - 2010-eko urtea

Taxes	Taux de 2009	Bases 2010	Produit fiscal 2010 à taux constants	Propositions année 2010 +1.50%	Produits correspondants
Taxe d'habitation	10.66	14 862 000	1 584 289	10.82	1 608 068
Taxe foncière (bâti)	9.39	11 733 000	1 101 729	9.53	1 118 155
Taxe foncière (non bâti)	27.38	205 100	56 997	27.79	56 997
		Produit fiscal	2 742 174		2 783 220

2010eko martxoaren 18ko finantza batzordea alde agertu ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak, kideen gehiengoan, 2010eko inposaketa tasa finkatu du taulak erakusten duen bezala.

ECHEVERRIA, HALSOUET, ARAMBURU Andereak, LASSALLE, MELE, ARAMENDI,

ELIZONDO Jaunek kontra bozkatu dute.

MELE Jaunak dio kontra bozkatzen duela gehitze hau jazkoaren gainera heldu delako.

ELIZONDO Jaunak kontra bozkatzen du, urtero bezala diru gehiegi sartua delako.

4 – Herriko oihanen kudeaketaren elkargoko lehiaketa

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak, oihanen segurtatzeko eta suteetat babesteko 2009ko eta 2010eko finkatuak izan diren gastuak, aho batez onartu ditu.

5 – Herriko Oihana – 2010eko ekintza egitaraua – ONF (Oihanetako Erakunde Nazionala)

Auzapez Andereak aurkezten du egitaraua :

Berregite obrak 14 141.60 € ht

Landatzeen babesa 17 603.10 € ht

Pistetako obrak 8 990.00 € ht

Landatzeak 21 781.40 € ht

Beste obrak 500.00 € ht

OROTARA 63 016.10 € ht

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez onartu du Herriko oihanetako ekintza egitaraua 2010 urterako.

Hau 74 017.29 € TTC gostako da eta Auzapez Andereak Herri Elkargoko laguntza eskatuko du.

6 – Herriko Oihanak - 2010eko ekintza egitaraua – Diru laguntza eskaera.

Auzapez Andereak dio Kontseilu Orokorrak eta Lurraldeko Kontseiluak diru laguntzak eman ditzazketeela : 6 296.40 € ht landatzeen babesteko, 9 428.40 € ht kandugabeko haritzen erosteko eta landatzeko.

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez onartu du Auzapez Andereak diru laguntzak eskatzea Kontseilu Orokorrari eta Lurraldeko Kontseiluari.

7 – Diru laguntzaren bozkatzea Laguntza Zozialaren Herriko Zentroari–2010eko urtea

180 000 €ko diru laguntza beharrezkoa da 2010eko Lehen Aurrekontuaren orekatzeko.

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez onartu du diru laguntza hori Urruñako CCAS-ari emaita.

ELIZONDO Jaunak ohartarazten du jaz kontra bozkatu zuela eta aurten alde bozkatuko duela laguntza goititu delako.

8 – Urruñako Turismo Bulegoaren diru laguntzaren bozkatzea –2010eko urtea

Auzapez Andereak 127 000€ko laguntza proposatzen du.

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak, kideen gehiengoan, diru laguntza hori bozkatu du.

ECHEVERRIA, HALSOUET, ARAMBURU Andereek, ARAMENDI eta ELIZONDO Jaunek kontra bozkatu dute.

ELIZONDO Jaunaren arabera desberdintasunak badira Turismo Bulegoari (127.000 €) eta beste elkarteei (51.000 €) emanak diren diru laguntzen artean.

9 – Diru laguntzen bozkatzea elkarteentzat – 2010eko urtea

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak, kideen gehiengoan, diru laguntza hori bozkatu du (zerrenda ikus eranskinetan)

ECHEVERRIA, HALSOUET, ARAMBURU Andereek, ARAMENDI eta ELIZONDO Jaunek kontra bozkatu dute.

ELIZONDO Jaunak dio 11.000 € bakarrik direla euskal kulturarentzat.

HACALA Anderea ez da ados horrekin.

ELIZONDO Jaunak dio emendatzerik ez dela ikusten. Adibidez : AEK erakundearen aguntza 1.500 €koa da azken 20 urte hauetan.

HACALA Andereak dio AEK egiazko enpresa bat bilakatua dela.

ELIZONDO Jaunak gaitzesten du fanfarrari emana zaion laguntza.

ELIZONDO Jaunak dio Uda Leku-ri ez zaiola aski emaiten (2.600 € bakarrik).

MELE Jaunak erraiten du Adixkideak elkarteak ez duela galdetzen duena eskuratzen.

HACALA Andereak azpimarratzen du elkarteak Zokoan aterbetua dela eta Carrera Baitan baino kargu gutiago duela.

ECHEVERRIA Andereak dio Organoen Elkarteak diru laguntza ederra eskuratzen duela.

10 - OHANTZEA eta OHANTZEA TTIKI haurtzaindegien funtzionatzearen gastuetan parte hartzea.

Emanak izan diren xehetasunen arabera, parte hartzea hau izan daiteke :

- 169 920 € Ohantzearentzat, 14 160 €ko hilabete sariarekin

- 64 800 € Ohantzea Ttikirentzat 5 400 €ko hilabete sariarekin

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez onartu ditu proposamen hauek.

ELIZONDO Jaunak azpimarratzen du LUMA-ren eskaera bat bazela ere.

11 – Fakturen ordaintzea URRUÑAko eskola bati.

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez onartu du Urruñako Ikastolari ordaintzea Eguberrikari erosi dituzten jokoak erran nahi da 262.50 € 2008 urterako, 330.00 € 2009 urterako.

12 – Ibardingo alokairuak : 2010eko sariaren berrikustaldia.

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez onartu du alokairuak honela finkatzea 2010 urterako.

Bestalde merkatarari gunearen berrantolaketa ez arras finkatua izanez Auzapez Andereak proposatzen du 9 hilabeteko alokairuen luzamena 2010eko abenduaren 31tik goiti.

MERKATARIAK	HELBIDEAK	ZATIAK	EREMUAK	Karga 2010 48,92 m ² a
Emilie MONDRAGON	Mendi Bista	1	93,82	4 589,67 €
	Dolareta bidea			
	64500 DONIBANE LOHITZUN			
Bruno PINO	JMD SARL	2	103	5 038,76 €
Monsieur DESAGES	Tournant Egoitza			
	64210 SENPERE			
Dominique TELLERIA	SARL MENDY	3	111	5 430,12 €
	EKHI Etxola			
	Ibardin n° 3			
	64122 URRUÑA			
Bernard BRUCH	Rue de l'Abattoir	4	95,96	4 694,36 €
Jean Luc SANSOUBE	Cam d'André ibilbidea	5	91,73	4 487,43 €
	64200 BIARRITZE	6	33,58	1 642,73 €
Chantal ELISSAGARAY	Sulzbach plaza n°3	7	118,93	5 818,06 €
	64122 URRUÑA			
Miguel ANGELBY	Rue de l'Abattoir	8	209,38	10 242,87 €
	40990 SAINT PAUL LES DAX	9		
Christine MICHELENA	Mendi Argi	10	137,76	6 739,22 €
	Lurberri bidea 685			
	64122 URRUÑA			
Josiane MONTEGUT	SARL XABOLA	11	100,10	4 896,89 €
Gilles POINCOT	Xume Alde Etxegunea			
	Lepo Bidean Egoitza			
	64122 URRUÑA			
GERARD Mathieu	Iratzia	12	99,36	4 860,69 €
	Azkaingo bidea			
	64122 URRUÑA			
		OROTATARA	1194,62	58 440,81 €

ELIZONDO Jaunak jakin nahi luke zer den Berako hautetsieri aurkeztua izan zaien proiektuaren edukina. Uzapez Andereak erantzuten dio proiektua dela merkataritza gunea erreberritzea eta saltegi berriak jartzea. Harremanak abiatuak dira saltzaileekin eta sareen kontsesionarioekin proiektua burutzeko.

13 - Bizilekuen hobetzeko eragiketa programatua (O.P.A.H) Euskal Herri Hegoko Elkargoa 2008 – 2011 – diru laguntza eskaera

Herriarentzat, ANAH (Bizilekuen hobetzeko erakundea) delakoak onartu zuen 2010eko otsailaren 23an etxe bizitzen antolaketa egitarau berri bat eta diru laguntza eskuratu du :

- LAGOURNEZ (SCI DONEKO) Anderearen dozierra . arteko bi etxe bizitza
Obra lagunduen zenbatekoa : 43 842 €

Urruñako Herriaren laguntza : 1 096 €

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez onartu du laguntza emaita dozier honentzat

14 - AP/CP deliberoaren aldaketa – Uholdeen kontrako obrak

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez onartu du uholdeen kontrako obrentzat hartu zen deliberoaren aldatzea.

15 - AP/CP deliberoaren aldaketa - Oletako eskolaren handitzeko obrak

2010eko martxoaren 18an Finantza batzordea alde agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez onartu du Oletako eskolaren handitzeko obrentzat hartu zen deliberoa aldatzea (hau eskolako altzarien eta jokoen erosteko).

16 – Urruñako eskola pribatuetako funtzionamenduan parte hartzea.

Andredena Maria eta San Frantses eskolak

2009ko abenduaren 14eko deliberoaren bitartez, Herriak hitzarmen bat izenpetu zuen OGEC erakundearekin eskola horietan ari diren herriko langileen kasua argitzeko.

Jende horientzat eginak diren gastuak herriaren parte hartzearen barne izanen dira eta OGEC erakundeak ordainduko ditu.

Konдутan hartuz 263 ikasle zirela eskola horietan urtarrilaren lehenean, herriaren parte hartzea hau izanen da :

Funtzionamendu gastuak : 124 205 € erran nahi da 472.26 € ikasle bakoitzarentzat

Herriko langileen gastuak : 112 500 € erran nahi da 427.76 € ikasle bakoitzarentzat

OROTARA 236 705 € erran nahi da 900.02 ikasle bakoitzarentzat

Urruñako Ikastola

Langileen gastuak osoki Urruñako ikastolak ditu pagatzen .

Konдутan hartuz 87 ikasle zirela urtarrilaren lehenean, herriaren parte hartzea hau izanen da :

Funtzionamendu gastuak 14 566.00 € erran nahi da 167.43 € ikasle bakoitzarentzat

Langileen gastuak 54 537.00 € erran nahi da 626.86 € ikasle bakoitzarentzat

OROTARA 69103.00 € erran nahi da 794.29 € ikasle bakoitzarentzat

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak, kideen gehiengoan, bozkatu du herriaren parte hartzea gorago errana den bezala.

HALSOUET, ARAMBURU Andereek, LASSALLE eta MELE Jaunek kontra bozkatu dute.

MELE Jaunak dio ezin dela onartu diru publikoa pribatuari emaita ezin delarik zerbitzu publikoa behar den bezala segurtatu.

V – LANGILEEN ZERBITZUAREN GAIK

1 – Kopuruen aldaketa

Herrizainen zerbitzuak eta beste zenbait zerbitzu laguntza beharretan dira ; lan desberdinetan ariko den langile bat hartzea proposatua da.

Gainera, komunikazioaz arduratuko den langile bat beharrezkoa liteke (barneko eta kanpoko komunikazio soportea prestatzeko, Herriko webgunearen animatzeko, prentsarekin harremanetan jartzeko)

Beraz bi lanposturen idekitzea eta langileak CUI kontratuarekin hartzea proposatua izan da (kontratu honekin Estadoak bere gain hartzen ditu gastuen 95%ak.

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak, kideen gehiengoan, baimena eman dio Auzapez Andereari kopuruen taula honela aldatzeko :

- Denbora osoko bi lan postu CUI kontratupean sortzea
- Gai honi doazkion kontratuak eta hitzarmenak izenpetzea

HALSOUET, ECHEVERRIA Andereek, ARAMENDI eta ELIZONDO Jaunek kontra bozkatu dute.

ARAMBURU Andereak ez du parte hartu.

ECHEVERRIA Andereak galdetzen du komunikazioaren arduraduna elebiduna denez.

Auzapez Andereak erraiten du momentuko ikusiak izan diren hautagaiak ez direla elebidunak.

VI – ZERBITZU TEKNIKOEN GAIAK

1 – Lagapena EXPOSITO Marie Andereak Urruñako Herriari

Lagapen hau beharrezkoa da Jolimon de Haraneder eta Ganabaitakoborda bide gurutzeta zabaltzeko. Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- Onartu du EXPOSITO andereak BN – n° 273 izendatua den 29 m²ko lurzattia Herriari urrik utz dezan
- GOGUET-PERRET-ERTAURAN-PAOLI, Notarioen gain uztea aktaren eta dokumentu guzien idazketa.
- Baimena emaiten dio Auzapez Andereari dozier honi doazkion akta eta dokumentu guzien izenpetzeko
- Oroitarazten du gai honi lotuak diren gastu guziak Herriaren gain direla.

2 – Eremu publikotik ateratzea – Pausun

FERREIRA Manuel Jaunak Ximonenea bere etxea handitu nahi luke ; hortarako beharrezkoa liteke eremu hori ontasun publikotik ateratzea eta herriko ontasun pribatuan sartzea.

Herriko Ontasunen Batzordea alde izanez eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak, aho batez, onartu du

- Herriarena den eremu hori eremu publikotik ateratzea
- Eremu hori Herriko ontasun pribatuan sartzea
- Botere guziak emaita Auzapez Andereari :
 - Inkesta publikoaren egiteko
 - SCP ROSSI-URBIETA & JACQUES, geometra adituak izendatzea planak eta neurketa dokumentua egiteko.
 - gai honi doazkion egin behar guzien egiteko.
- Oroitarazten du gastu guziak FERREIRA Manuel Jaunaren gain izanen direla.

CONNAN-GIACOMETTI Anderea ateratzen da 19 : 45 tan.

3 – Herria eta / LAGUILLON Maylis Anderearen arteko salmenta

2004eko urtarrilean Etienne GACHEN Jaunak galdetu zuen landabidearen idekitzea K-663 bere lur pezan sartzeko ahala ukan dezan .

2003ko urtarrilaren 22an, Maylis LAGUILLON Andereak galdetu zuen landa bide hori erostea eta eza eman zion Herriak 2007ko apirilaren 3an.

Dozierra aurkeztua izan da 2010eko urtarrilaren 29 eta Herriko Ontasunen Batzordeak onartu zuen, GACHEN Jaunak eta LAGUILLON Andereak onartu eta, 4metrako bidea idekitzea eta herriko zerbitzuek bidea antolatzea,

2010eko martxoaren lehenean, LAGUILLON andereak galdetu zuen bidea egin ondoan gelditzen zen lurra ren 340m²ak erostea.

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak, aho batez :

- Onartu du

1. landa bidearen idekitzea Etienne GACHEN-ek bere lurretan sartzeko ahala ukan dezan
2. 340 m²-ko gelditzen den lurra Lissareskoborda landa bidean Maylis LAGUILLON Andereari saltzea.

- Botere guziak emaita Auzapez Anderari :

- SARL ELGORRIAGA eta MONEDERO, -Geometra adituak izendatzea planak eta neurketa dokumentuak egiteko.
 - Inkesta publikoaren egiteko.
 - gai honi doazkion akta eta dokumentu guziak izenpetzeko.
- Oroitarazten du gastuak LAGUILLON Anderearen eta Herriaren artean banatuak izanen direla :
- Geometra gastuak herriaren gain izanen dira
 - Notarioen gastuak LAGUILLON Maylis Anderearen gain izanen dira.

4 - LARRETICHE Marie-Jeanne : alokairuaren bukatzea

2009ko abenduaren 18an aldeko iritzia agerturik eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez :

- Onartu du LARRETICHE Marie Jeanne Anderearen alokairua AC – n° 114 izendatua den lurzatiarena bukatzea 2009ko Abenduaren 31an .

- Baimena eman dio Auzapez Andereari gai honi doazkion dokumentu guziak izenpetzeko.

CONNAN-GIACOMETTI Anderea sartzen da 19 : 47tan

5 – Eskuratze/ Trukaketa –URBISTONDO Jeanne Marie Anderea / Urruñako Herria

Lur zati baten eremua gaizki hartua izanez gero, Herriko Kontseiluak aho batez :

- Onartu du URBISTONDO Andereak Herriari utzi dion lur eremua BL – 188 izendatua 231 m²koa dela.
- Onartu du aldaketa honen prezioa 1302 €koa dela eta Urbistondo Andereak pagatuko duela.
- Baimena eman dio Auzapez Andereari akta eta dokumentu guzien izenpetzeko.

6 –Philippe ARAMBURU Jauna : 3, 6, 9 urteko alokairua

Philippe ARAMBURU Jaunak galdeginik eta herriko Ontasunen batzordea alde agertu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez

- Erabaki du 1980 eko apirilaren 11an izenpetua izan zen alokairu anfiteatikoa bururatzea.
- Erabaki du Philippe ARAMBURU Jaunari AC n° 130. 131. 133. 134. 135 eta AN n° 40 et 42 izendatuak diren herriko lurak alokatzea 3, 6, 9 urterentzat.
- Baimena eman dio Auzapez Andereari dozier honi doazkion dokumentu guzien izenpetzeko.

7 –Mikel IBARBURU Jauna : 3, 6, 9 urteko alokairua

Mikel IBARBURU Jaunak eta Maité IBARBURU bere amak galdeturik, Herriko Kontseiluak aho batez

- Erabaki du Maité IBARBURU Anderearekin 2008ko urtarrilaren 1^{ean} izenpetua zuen alokairua bururatzea.
- Erabaki du IBARBURU MiKel Jaunari , BE – n°114 et 120 izendatuak diren lurak alokatzea 3, 6, 9 urterentzat.
- Baimena eman dio Auzapez Andereari alokairu honi doazkion akta guzien izenpetzeko.

9 - GALZABURU etxegunea : Bide, ekipamendu eta erretentzio urmaelak urririk uztea.

FAGONDO Salvat Jaunak, galdetu zuen GALZABURU etxeguneko bide, ekipamendu eta erretentzio urmaelak herriari uztea urririk

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez :

- Onartu de BA n°199 eta BA n°62 GALZABURU etxeguneko bide, ekipamendu eta erretentzio urmaelak bere gain urririk hartzea.
- Botere guziak emaiten dizkio Auzapez Andereari landa bideeri doakion inkesta egiteko eta dozier honi doazkion betebeharrak egiteko
- Erabaki du GOGUET – PERRET – ERTAURAN, Notarioen gain uztea behar den aktaren idaztea.
- Baimena emaiten dio Auzapez Andereari akta honen izenpetzeko.
- Oroitarazten du gastuak Salbat FAGONDO Jaunak dituela pagatuko.
-

10 – Hirigune mугen ezartzea Urruñako auzoetan eta N° 4, N° 304 et N° 810 departamenduko bideetan.

Auzapez Andereak erran du hirigune muga bat finkatua izan dela auzo hauetan :

- Pausun
- Kexiloan
- Zokoan
- Oletan
- Plazan

Gune hauetan abiadura 50 km/h.tan mugatua izanen da.

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak aho batez :

- Baimena eman dio Auzapez Andereari hirigune mugak finkatzeko Urruñako auzoetan eta N° 4, N° 304 et N° 810 departamenduko bideetan.

. Planak ikus daitezke idazkaritza nagusian.

ELIZONDO Jaunak espero du ez dela radarren jartzeko parada izanen.

VII – BESTE GAIK

Ez dira izan

Saioa 19 :50 eta bururatu da